



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/07/11

## **8.300 ikaslek baino gehiagok hartu dabe parte Enkarterrietako Museoaren jarduera didaktikoetan**

Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagon Enkarterrietako Museoeko Hezkuntza Sailak 8.342 ikasleri historia eta kultura hurreratu deutsez 2018-2019 ikasturtean. Beste urte batez, jarduera didaktiko horreek partaidetza handia jaso dabe, eta egon diren plaza guztiak bete dira. Bizkaiko eta Kantabriako 130 ikastetxetako irakasleak eta ikasleak museora hurreratu dira, erakunde horren eukiak ikasleen artean modu atseginean eta partaidean zabaltzea bilatzen daben ekimen pedagogikoetan parte hartzeko.

Lehen hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako 1.700 ikasle inguruk Abellanedako Batzar Nagusien jatorria eta garapena ezagutu ahal izan ditue “Alkartu gaitez Abellanedan” eta “El Pobaleko burdinolagaz egindako ekintza” jardueren bitartez, holan Bizkaiko eta Enkarterriko politika eta administrazio arloko gizaldietako antolakuntzan sakonduz eta bertako erakundeen egitekoa aztertuz.

Beste alde batetik, bigarren hezkuntzako 1. mailako 1.850 ikaslek “Historiaurreko Tailerrean” hartu dabe parte, eta DBHko 2. mailako 2.092 ikaslek Erdi Aroa ezagutu dabe, izen bereko tailerraren bitartez. Ikasturte honetan, barrikuntza moduan, genero begirada aurkeztu da tailer horretan, Erdi Aroko emakumeak gure lurraldean beteten eban lekua erakutsiz, eta emakumeek uribilduetan eta eleizateetan egiten ebezan beharrak jenteari azalduz, Bizkaiko Andrek bete izan ebezan kargu politikoak ahaztu barik.

Ikasturteari agur esateko, 6 eta 9 urte arteko 2.700 partaidek ahozko tradizioa eta mitologia ezagutu ditue apirilaren 20tik bagilaren 21era egin diran “Bizi zure kontua” eta “Sortu daigun geure munstroa” tailerretan. Lehenengoan ikasleak ipuinaren, kontuaren, mundura hurreratu dira, modu aktiboan, partaidetzan oinarrituta, umeak euren abenturaren protagonista bilakatuta. “Sortu daigun geure munstroa” tailerrean, euskal mitologiako izaki fantastikoak ezagutu eta modu geografikoan kokatu ditue. Artelanak ikusiz, lehen hezkuntzako lehenengo ikasturteetako ikasleek izaki fantastiko horreen sekretuak ezagutu ahal izan ditue, ikasleek eurek asmautako munstro barriak modu artistikoan sortuz bukatu dan ekintzan.

Historia, kultura eta etnografia ondarea zabaltzea da, gizaldi luzez foru gobernuaren egoitza izan zan Abellanedako Batzarretxea izandako Enkarterrietako Museoaren helburuetako bat. Helburu hori beteteko, Enkarterrietako Museoak, ikasleei zuzendutako eskaintza didaktikoaz gain, urtero hainbat taldeentzat pentsautako bisitak eta ekintzak antolatzen ditu, emakume alkarreentzat, helduen hezkuntza taldeentzat, euskaltegiako ikasleentzat eta gizarte-osasun arloko alkarreentzat, beste batzuen artean. Talde horreek kontuan izanda, 8.842ra heltzen da 2018ko irailtik 2019ko bagilera Enkarterrietako Museoaren prestakuntza eskaintzan parte hartu dauen bisitari kopurua.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
11/07/2019

## **Más de 8.300 escolares han participado en las actividades didácticas del Museo de las Encartaciones**

El Departamento de Educación del Museo de las Encartaciones, perteneciente a las Juntas Generales de Bizkaia, ha acercado la historia y la cultura a 8.342 escolares durante el curso 2018-2019. Se ha mantenido un año más la alta participación en estas actividades didácticas, habiéndose llenado el 100% de las plazas disponibles. Profesorado y alumnado de un total de 130 centros educativos de Bizkaia y Cantabria se han acercado hasta el museo para participar en estas iniciativas pedagógicas que pretenden difundir de una manera entretenida y participativa los contenidos de esta institución entre la población escolar.

Un total de 1.700 alumnas y alumnos de 6º de primaria y de 1º y 2ª de la ESO ha conocido el origen y desarrollo de las Juntas Generales a través de las actividades “Juntémonos en Abellaneda” y “Actividad conjunta con la Ferrería de El Pobal”, profundizando de este modo en la organización político-administrativa de Bizkaia y Encartaciones a lo largo de los siglos y analizando la función de sus instituciones.

Por otro lado, 1.850 escolares de 1º de educación secundaria han participado en el “Taller de Prehistoria” mientras que 2.092 escolares de 2º de la ESO han descubierto la Edad Media a través del taller homónimo. Como novedad, durante este curso escolar se ha presentado una mirada de género en dicho taller, descubriendo el papel de la mujer medieval en nuestro territorio, dando a conocer desde los oficios desarrollados por mujeres en villas y anteiglesias hasta los cargos políticos desempeñados por las diferentes Señoras de Bizkaia.

Para despedir el curso, 2700 participantes de entre 6 y 9 años han descubierto la tradición oral y la mitología en los talleres “Vive tu cuento” y “Creando monstruos”, que se han celebrado desde el 20 de abril y hasta el 21 de junio. En el primero de ellos, se ha acercado al alumnado el mundo del cuento de una forma activa y participativa, convirtiendo a niños y niñas en protagonistas de su propia aventura. En el taller “Creando monstruos”, han conocido y situado geográficamente a los seres fantásticos que habitan en la mitología vasca. Mediante la observación de obras de arte, escolares de los primeros cursos de educación primaria han podido descubrir los secretos de estos seres fantásticos, en una actividad que ha terminado con la creación artística de nuevos monstruos ideados por el alumnado.

La difusión del patrimonio histórico, cultural y etnográfico es uno de los objetivos del Museo de las Encartaciones, antigua Casa de Juntas de Abellaneda, que fue centro del gobierno foral durante siglos. Además de la oferta didáctica dirigida a escolares, el Museo de las Encartaciones, organiza cada año visitas y acciones pensadas para asociaciones de mujeres, grupos de educación para adultos y adultas, alumnado de euskaltegis y asociaciones de ámbito socio-sanitario. Incluyendo a estos colectivos, aumenta hasta 8.842 el número de visitantes que han participado de la oferta formativa del Museo de las Encartaciones desde septiembre de 2018 hasta junio de 2019.